



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIZTANLEEN ERROLDAKO ZIURTAGIRIAK

Larraulgo Udalak jakinarazten dizue, Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioena betetzeko, elkarbizitza edo beste norbaiten errolda ziurtagiriak eskuratzeko, beraien baimena aurrez aurkeztu behar dela. Ondoren aukera desberdinak azalduko zaizue:

-Elkarbizitza ziurtagiriak : Elkarbizitza ziurtagiria eskuratzeko, etxe horretan bizi diren adin nagusiko guztien baimena behar da, horretarako Udal honek prestatu duen baimen orria beteta ekarri beharko da Udal bulegora. Baimen orria, udal bulegoan, posta elektronikoz edo web orrian eskuratu daiteke.

-Errolda agiriak: Beste baten errolda agiria eskuratzeko, adin nagusikoa bada, honen baimena beharko da. Udal honek prestatu duen baimen orria beteta ekarri beharko da Udal bulegora. Baimen orria, udal bulegoan, posta elektronikoz edo web orrian eskuratu daiteke.

-Adin txikiko baten errolda agiriak: Adin txikiko baten errolda ziurtagiria eskuratzeko, bi gurasoen baimena beharko da. Udal honek prestatu duen baimen orria beteta ekarri beharko da Udal bulegora. Baimen orria, udal bulegoan, posta elektronikoz edo web orrian eskuratu daiteke

Baimen agiria eta eskaera orria, Larraulgo Udalaren web orrian eskuratu ditzakezue: <http://www.larraul.eus/eu/-/biztanleen-erroldako-ziurtagiriak>

2017ko udaberri aldera bando honetan azaldu zaizuen errolda agiriak lortzeko, etxetik ateratzeko aukera ezarriko da martxan. Dena prest dagoenean guziaren berri emango zaizue.

Besterik gabe, agurtzen naiz.

Larraulen, 2016ko abenduaren 19an.

Alkateak